



## Nafarroako eta Bizkaiko Txapelketak **ate joka**

**Udako bertso saio eta plaza maratoiaren atarian, udazkeneko txapelketak prestatzen ari dira Nafarroan eta Bizkaian.**

2023ko udazkenek txapelketa izena du; Nafarroako eta Bizkaiko txapelketen izena hain zuzen ere. Bi herrialde hauetako bertsolari eta bertsozaleek txapelketaz gozatzeko aukera izango dute urteko azken hilabeteetan. Bi urte pasa dira bai Nafarroan eta bai Bizkaian ere herrialdeko txapelketak egin zirenetik eta bi urteko tarteari jarraituz aurten lehiatuko dira berriz ere.

Urriaren 7an abiatuko da 2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketa, eta abenduaren 2an bukatu. Aldez aurretik, ordea, bi aurrekanporaketa jokatu dira udaberrian, azken edizioan parte hartu ez zuten bederatz bertsolariarekin, eta azken txapelketako azken hiru sailkatuekin.

Bi aurrekanporaketa horiek jokatu, zazpi bertsolari sailkatu dira Nafarroako Bertsolari Txapelketara:

- Aitor Irastortza Arrizubieta
- Beñat Astiz Isasi
- Egoitz Gorosterrazu Elizagoien
- Eki Mateorena Zozaia
- Fernando Ziganda Urdanpilleta
- Saats Karasatorre Martinez
- Urko Gartzia Aleman

Zazpi bertsolari hauek, beste hamazazpi lagunekin batera ariko dira urriaren 7an abiatuko den Nafarroako Txapelketan.

### Udabarria Bertsoan

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa urriaren 1ean hasiko da eta abenduaren 16an bukatuko da. Aurretik ordea **Udabarria Bertsoan** sailkapen fasea egin dute. Sei bertsolari zortzi saio jokatu dira maiatzean eta guztira 48 bertsolari hartu dute parte. Bizkaiko eskualde guztietako parte hartzaileak egon dira. Udazkeneko kanporaketetan hasiko dira kantuan Udabarria Bertsoan fasetik sailkatutako bertsolariak kantuan, baita 2021ean finalurrekoetan kantatu zutenak ere; eta finalurrekoetan hasiko dira lehia 2021eko finalistak.

Hauetako kanporaketetara sailkatu diren bertsolariak.

- Aissa Intxausti Aburuza
- Aitor Arrutia Azkueta
- Ander Sarriugarte Garcia
- Araitz Katarain Mugarza
- Arkaitz Zipitria Mendizabal
- Asier Galarza Garai

- Beñat Bilbao Landa
- Bittor Altube Sarrionandia
- Garazi Navarro Ugarteburu
- Garikoitz Sarriugarte Onandia
- Ibai Amillategi Omaetxebarria
- Igor Galarza Intxausti
- Iker Garitagoitia Astigarraga
- Iker Uriarte Urrutia
- Inazio Vidal Gurrutxaga
- Iñaki Iturriotz Zuluaga
- Iruri Altzerreka Martinez
- Izaro Bilbao Arostegi
- Janire Arrizabalaga Munduate
- Jone Larrinaga Dañoibeitia
- Koldo Gezuraga Seijiido
- Koldo Muñiz Aldamizetxebarria
- Lurdes Ondaro Mallea
- Maite Sarasola Isazelaia
- Mikel Goirieta Larrazabal
- Mikel Retolaza Etxebarria
- Peru Irastortza Santxo
- Peru Vidal Gurrutxaga
- Unai Mendiburu Valor

**HAIRA AIZPURUA  
IBARGARAI**  
Iurreta, 2023-06-03  
Euskal Herriko Eskolarteko  
txapelduna



Doinua: *Goizean altxatu eta*

Udalekuko famili bat bada hemen dagona. Ibai, Irantzu ta Haize zaizte nire zoriona. Luma, zu gabe enintzake hain lasai helduko hona. Unax, zuk eman diezu nire bertso denei forma. Nire ondoan bihotzez bakotxa baita egona zuei esker dut ahots hau eta naiz naizen pertsona, zuentzako da txapela amatxi eta amona.



Urritik abendura bitartean jokatu dira Nafarroako eta Bizkaiko Txapelketak. //XDZ

# Bertso plaza pandemia aurreko egoerara itzuli dela erakutsi du 2022ko azterketak

Azken urteetan bezala, 2022ko plazaren azterketa ere egin du aurten Bertsozale Elkarteak, bertsolaritzaren ekosistemari jarraipena egitea helburu. Xenpelar Dokumentazio Zentroak gidatutako bilketa sistemak emandako datuei esker atera da pasa den urteko plazaren argazkia.

Bertsolaritzaren mugimenduaren unean uneko egoera aztertu asmoz, bertso plazaren azterketa egin du aurten ere Bertsozale Elkarteak. Urte osoan zehar datuak biltzen egiten den lanari esker izan da posible azterketa lana. Xenpelar Dokumentazio Zentroak gidatutako bilketa sistemako datuak baliatu dira horretarako; sistema horren arabera, lau saio motek osatzen dute "Bertso plaza" gisa ezagutzen duguna: jaialdiak, lagun-arteak, librekoak eta bat-bateko bereziak. Dena dela, hainbat datu biltzerako orduan, beste saio mota batzuk ere hartu dira kontuan 2022ko azterketan.

Bertso plaza osatzen duten saioen kopuruei erreparatuz, plaza Covid-19ak eragindako pandemiaren aurreko egoerara itzuli dela esan daiteke. Izan ere, 2022an zehar 1069 saio izan ziren plazan. Pandemiarik gabeko azken urtean, 2019an, 1130 izan ziren, baina kontuan hartu behar da 2022ko lehen bi hilabeteetan pandemiaren aurkako neurriak oraindik indarrean zeudela, horrek kultur emanaldiak antolatzeko zekarren zailtasunekin. Kopuru absolututan, beraz, izurritearen aurreko garaian pare dago egungo plaza, baina aldaketa batzuk daude bertso saio moten banaketari dagokionez. Libreko saioek, izan ere, beherakada izan dute, eta jaialdi kopuruak, aldiz, gora egin du.


Kopuru orokorretan eta motaka aztertzeaz gain, Bertsozale Elkarteen hiru zeharlerroen –generoa, belaunaldiartekotasuna eta lurraldetasuna- arabera ere aztertu du ikerketak plazaren egoera. Generoari dagokionez, azken hamarkadan argazkia irauli dela esan daiteke: 2010ean %20koa zen emakumezkoen parte-hartzea; gaur egun, aldiz, ia gizonezkoen parekoa izatera pasa da. Edonola, saio motatik motara jauzi handia dago ehunekotan, nahiz eta, oro har, orekatzera egin duten mota guztiak.



Belaunaldien arteko banaketari dagokionez, gaur egun plazan dabilen bertsolari taldea adinez nahiko orekatua dela esan daiteke. Erretiroa hartuta edo hartzeko dauden bertsolariak zein 20 urte bueltakoak aritzen dira, batera, plazan.

Lurraldetasunari dagokionez, azkenik, bi datu bildu ditu azterketak: bata, plazan aritu diren bertsolarien jatorria, lurraldeka antolatuta. Eta bestetik, antolatu diren saio guztiak, lurraldeka banatuta.

Hemen azaldutakoak eta askoz datu gehiago jasotzen ditu 2022ko bertso plazaren azterketak. Txosten osoa [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian.



Plazako saioen bilakaera 2004tik 2022ra. //XDZ

# “Aldaketa nagusia jaialdien gorakada eta librekoen beherakada izan da”

**Urte batzuk badira Bertsozale Elkartek plazaren azterketa egiten duela eta datuen irakurketa egin digu Oier Iurramendi Bertsozale Elkarteko sustapen eragileak.**

**Zergatik eta zertarako egiten da Plazaren Azterketa?**

Bertsozale Elkartean 2018an egin zen gogoetan eta sustapeneko lehentasunetan plazaren eragitearen garrantzia azpimarratu zen. Atera zen ondorio nagusia izan zen plazaren eragin ahal izateko, plaza ezagutzea ezinbestekoa zela. Elkartek egiten dituen egitasmo askok zerikusia dute plazarekin eta plaza ezagutzen ez badugu ez dakigu egiten ari garen hori benetan plazaren beharra den edo ez. Plaza ezagutzeko daukagun erraminta baliagarriena da plaza azterketa bera. Datuen bilketa Xenpelar Dokumentazio Zentroari esker egiten dugu, urte osoan zehar egiten diren saio ia guztien datuak biltzen ditugu eta azkenean datu base horri esker plaza azterketa egitea erraza eta era berean garrantzitsua da.



Oier Iurramendi Bertsozale Elkarteko sustapen eragilea. //XDZ

**Zein da 2022ko azterketaren ondorio nagusia?**

Plaza pandemia aurreko datuetara itzuli dela izango litzateke titular nagusia. Lekura ez nuke esango, txostenean zehar ikusten delako leku desberdin bat hartu duela. Saio mota batzuk lehen baino kopuru altuagotan ari direlako antolatzen eta beste batzuk gutxiagotan, kopuru orokorretan saio kopurua mantendu den arren.

**Saio motaren arabera, zer aldaketa ekarri ditu pandemiak?**

Urteko bertso saio kopurua antzekoa da. Aldaketa nagusia jaialdien gorakada eta librekoen beherakada izan da. Lehendik ere bilakaera hori bazetorrela esan daiteke, baina oso aldaketa txikia zen urtetik urtera ematen zena. Pandemiaren librekoak eta otordu bueltakoak izan ziren antolatu ez zirenak, balditzez uzten ez zutelako, eta jaialdiak edo oholta gainera saio bereziak ziren antolatu ahal ziren bakarrenetakoak. Horrek ekarri zuen librekoak antolatzen ziren herrietan jaialdiak antolatzekeo hautua hartu izana. Orain normaltasuna itzuli denean, antolatzaile askok jaialdiaren formatua mantendu dute librekoaren ordez.

**Generoari dagokionez, datuak orekatzera doazela dirudi. Nola azaldu daiteke bilakaera hau?**

Datuetan ikusten zen pixkanaka bazetorrela orekatzea, baina aldaketa nabarmenena 2017-2018tik aurrera ematen da. Ez dakit kasualitatea den edo arrazoien artean egon daitekeen Elkartearen gogoeta estrategikoarekin bat egitea. Elkartek lehen lerrora ekarri zuen feminismoa, generoa eta plazako parekidetasunaren gaia. Bertsolaritza gizarte mugimendua denez gero, elkar eragiten dute eta gizartearen feminismoak presentzia irabazi ahala bertsolaritzan ere hartu du lekua. 2018tik aurrera emakumeen parte-hartzeak egin duen gorakada askoz ere handiagoa izan da beste urteekin alderatuz. Elkartek urtetan egin du lana plazan egon den ezberdinkeria ikusarazteko, guzti horrek lan pedagogikoa bat ekarri du antolatzaileengan ere. Pixkanaka hartu dute emakume bertsolarien plazan lekua, eta pandemiak eman dio azkeneko kolpea. 2022an joera hori mantendu da, eta gizonezko eta emakumezko bertsolarien parte-hartzea parekatua izan da. Hala ere, saio moten arabera badaude ezberdintasunak oraindik. Bereziki izen ematea librea den saio motetan, txapelketaren moduan, gizonezkoen parte-hartzea askoz ere handiagoa da. Ez da Kasualitatea bezalako saioek berriz emakumezkoen parte-hartzea areagotzen dute.

**Nola banatzen da plaza belaunaldien arabera?**

Gaur egun dabilten bertsolarien belaunaldiak orekatuta daudela esan daiteke. Egia da, 30-40 urtetatik aurrera desberdintasun batzuk ematen direla. Aldiro bertsolari batzuk plazako ibilbidea bukatzen doazelako, batzuk hautu propioz eta beste batzuk halaberrez. Belaunaldi gazteetatik jende berria sartzen da beti, eta horrek bertsolari batzuk plazako zirkuitotik ateratzea edo bigarren lerrora pasatzea dakar. Egia da, 25 urtez azpiko 100 bertsolaritik gora izan direla, baina guztiek ez dute plazetan jarraituko gerora, beste belaunaldietan pasa den moduan. Azken urteetan plaza kopuru antzekoa dugu eta horietan kantatu ahal izateko bertsolari asko daude. Ondorioz batzuk plaza gehiago eta besteak gutxiago izango dituzte. Nabarmen ikusten da adibidez 60 urtetik gora emakumerik ez dagoela. 25 urtez azpikoetan berriz, gehiago dira emakumezkoak gizonezkoak baino. Belaunaldi berrietan eman da lehen aldiz kasuistika hau.

**Eta lurraldetasunaren ikuspegitik?**

Hau da bilakara aldetik aldaketa gutxien izan duen aztergaia azken hamarkadan. Normalean aztertzen ditugun alderdi guztiek antzeko parametroak dituzte. Lekuko errealitate soziolinguistikoari erantzuten diote datu datuek. Behar handiena dagoena herrialdeetan lan izugarri bat egiten da bertsolaritza presente egoteko, saioak antolatzekeo eta bertako bertsolariak aurrera ateratzeko, horri egin mantentzen da bertsolaritzaren presentzia. Horrek beste behar bat ere azaleratzen du, hainbeste baliabide eta errekurtsio ez dituzten lekuetan bertsolaritza egoteko lan gehiago egin beharra. Ea hurrengo urteetan asmatzen dugun argazki hori orekatzen.





# Puntua jarrita

DYLAN INGLIS

Ibon Iza lagun handiak itauna luzatu dit: iganderoko nazioarteko saioak noizbait hezur-haragizko bilkura bat ezagutuko du?

Zaila da irudikatzea, igandero esne-saltzailearen doinua AEBetako Ozeano Barearen ertzetatik hasi, Washington eta Arratiatik igaro eta ni bizi naizen Kaukaso mendietaraino heltzen delarik. Non litzateke, Boisen, Tbilisin edo Diman? Zuek erran tenorea, eta jinen naiz!

ORain, beste bertso-bilkura berezi batez ere bi hitz nahi nituzke esan, berak ere bertsoaz dudan ikuspegia asko aberastu didalakoz.

Zuberoko bertso-eskola nahi deizüet aipatü.

2021eko ürrhentzean, Züberoan negüaren igaraitetik nintzalarik, lagün elibat Xiberoko Botzako egoitzan saioak egiten hasi ginen, koblakan aritzeko nahiant. Eskola hein bat berezi zen, artetarik bertso erdian Ximun edo Benat irrati-kasetalariek elki behar beitzüen antenalat igaraitera!

Errimagia amini bat egokitü behar zen. Adibidez, züberotarrez ekürü (geldi), leinürü (izpi), ühülgü, pürü (bederen) entzün ahal zenitzake hamarrekoko handi batetan.

Geroztik saioak nümerikoalat igaran dira, bena arüz ez da hor baratüko. Jüstoki, aurtenko taldekako Xilaban, aspaldiko partez, Zuberoko talde bat tauladalatüko da. Marka hon!

Ürrhentzeko, honetzaz gain, oroitü behar da urtekal Züberoako herri bateko gazteek maskarada joanarazten düela, eta hor ere badela bertso paketa. Goizanko barrikadetan bi kantari gaztek herri bateko aüzoer kobla elibat kantatzen deie. Aurten Leire Casamajou sohütarsa, gure bertso-kidea, maskaradan parte-harzale izan da.

Leire – bedatse hontan asteoro Züberoako herri ezbardin batealat joan hiz, eta aldikal herritarrer kobla eskeintü deien, goiz eta arrats. Nolako esperientzia izan da hiretako? Zonbateko inportantzia dü maskaradak generazione berrier eüskararen sorküntzaren eta bizitatzünaren igaranarazteko?

Zuzenketa:

Maiatzeko papereko BertsoZalean Puntua Emanda zutabea Ibon Iza Totorikak idatzi zuen.

# Koplak

## Baditugu ZirTok lehiaketako irabazleak

ZirTok umore errimatuia sustatzeko TikTok-eko lehiaketa *Honek balio al dik?* bideoak irabazi du. Esketx onenaren saria *Iruñeko Auzoak* bideoarentzat izan da eta zozketa bidezko saritua *Landareen iraultza* bideoa. Irabazleen bideoak ikusteko sartu [www.zirtok.eus](http://www.zirtok.eus) atarian edo TikTok-en @zirtok\_ kontuan.

# Poto-Finixa



Etorkizuna, oraina eta kondaira

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

## Irailen itzuliko da Hitzetik Hortzera

Hitzetik Hortzerako lan taldea hasi da denboraldi berria prestatzen. Programa itxura berrituta itzuliko da eta aurkezle berria izango du. Mirari Martiarena oiartzuarra izango da aurkezle lanetan ariko dena. Irailaren 16tik aurrera bertso eskaintza zabala izango da larunbatero 21:00etan ETB1en.

**ANON YME POPULAR**

Kontrataziorako [marketina@lanku.eus](mailto:marketina@lanku.eus) helbidera idatzi edo **675.716.472** telefonora deitu

PUBLIZTATEA